



FAMILIEN ORDEZKARIA - GIDALIBURUA

1. AURKEZPENA

Familien ordezkariaren figura kirol entitateek beren borondatez ezar dezakete “[Eskola Kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa](#)” aplikatu behar den kirol modalitateetako taldeetan. Ordezkari horren helburu nagusia izango da norgehiagoketara biltzen diren zaleen jokabidea ona izatea.

Arabako Foru Aldundiaren iritziz familien ordezkariaren figura oso onuragarria izan daiteke eskola kiroleko norgehiagoketan kiroltasuna sustatzeko eta harmailetan jokabide desegokirik ez lotsagarrikerik ez gertatzeko. Horregatik, Aldundiak kirol entitateei eskatzen die ipin dezatela abian figura hau beren taldeetan.

2. ZEIN DIRA FAMILIEN ORDEZKARIAREN EGITEKOAK?

1. Bere taldearen zaleen jokabidea gainbegiratzea

Familien ordezkariak adi egon behar du bere taldeko familiakoek eta zaleek nola jokutzen duten taldeak parte hartzen duen lehiaketetan, lokal edo bisitari gisa, eta behar dena egin behar du begirunearekin eta kiroltasunarekin aritu daitezen.

2. Esku hartzea bere taldearen zaleen jokabidea desegokia denean

Ordezkariak ikusten badu bere taldeko norbaitek arbitroentzat, kirolarientzat, entrenatzaileentzat edo beste taldeko zaleentzat iraingarria izan daitekeen protesta, keinu edo adierazpenen bat egin duela edo zerbait larria egin duela (irainak edo hitz zantarrak), esku hartu behar du, lasai eta tentuz. Gaizki ari diren ikusleengana joan daiteke, arauak gogorarazi eta behar bezala portatzeko eskatu. Garrantzitsua da hori guztia egiten duenean begirunea erakustea eta giroa are gehiago ez txartzea.

3. Arbitro taldekoei protokoloa aplikatzeko eskatzea

Beste taldeko zaleen jokabidea desegokia bada, arbitro taldekoei eskatu behar die aplika dezatela protokoloa, egoera onbideratzeko.

Halaber, bere taldearen zaleen jokabidea desegokia denean ere eskatu ahal izango du protokoloa aplikatzeko, lasaitzeko eskatu ondoren modu berean jokutzen segitzen badute.

4. Beste taldearen zaleekin istilurik ez gertatzea lortzea eta, egonez gero, bitartekari aritzea konpontzeko

Ordezkariak adi egon behar du zer gertatzen den bere taldearen zaleen eta beste taldearen edo taldeen zaleen artean. Helburua da zaleen artean ez gertatzea iskanbilarik ez probokaziorik,



halakoetan egoerak erraz egin baitezake okerrera, ondo kudeatzen ez bada.

Norberaren taldearen zaleen eta beste talde baten zaleen artean istiluak sortzen badira, ordezkariak bitarteko aritu behar du arazoa onez konpontzeko. Horretarako, gatazka guztiak eragotzi behar ditu eta, beharrezkoa izanez gero, poliziari esku hartzeko eskatu.

5. Arbitro taldekoei eta antolatzaileei laguntzea

Ordezkaria prest egon behar da kasu larrietan arbitroei edo lehiaketaren antolatzaileei laguntzeko, eskatuz gero. Harmailetan gertatzen bada partidaren eragina izan lezakeen estualdiren bat edo partida amaitu ondoren liskarrak sortzen badira, arazoa konpontzen lagundu beharko du edo jazarpena jasaten duten arbitroak eta bestelako pertsonak babestu.

6. Errespetua eta kiroltasuna sustatzea

Gatazketan esku hartzeaz gainera, familien ordezkariak ikusleen portaera ona izatea ere sustatu behar dute, modu proaktiboan. Horretarako, besteak beste, bere taldearen zaleei eskatu diezaieke begirunearekin animatzeko eta giro atsegina mantentzeko, eta gogorazi ahal die kirolak elkarri errespetua edukitzea eta elkarbizitza sustatzen dituela.

7. Lehiaketaren arauen berri ematea

Bere taldearen zaleetako batzuek ez badakite zein diren lehiaketaren arauak, nola portatu behar diren edo zer ezartzen duen protokoloak, ordezkariak azalpenak eman behar dizkie adeitasunez eta argi.

8. Jakin beharreko gertaeren berri ematea

Jokabide txar larriak gertatzen badira edo behin eta berriro gertatzen badira, onuragarria izan daiteke familien ordezkariak gertatutakoa gogoan hartzea eta gero kirol entitatearen zuzendaritzari edo adingabeak babesteko ordezkariari jakinaraztea, bai eta, beharrezkoa izanez gero, informazioa lehiaketa antolatu duen federaziora bidaltzea ere. Horrela hobeto jakin ahal izango da zer gertatu den eta neurriak hartu ahal izango dira berriz ez gertatzeko.

3. ZER JARDUKETA ZEHATZ EZARTZEN DIRA ESKOLA KIROLEKO HARMAILETAN ERRESPETUA SUSTATZEKO PROTOKOLOAN?

Aldez aurreko gogoetak

- Familien ordezkariak Arabako Foru Aldundiak emandako identifikazio besokoa soinean eduki beharko du, lehiaketan parte hartzen duten gainerako agenteek eta ikusleek identifika dezaten.
- Familien ordezkariak nahitaez jakin behar du "Harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa".

Partida edo lehiaketaren aurretik

- Modalitatean lehiaketa akta egiten bada, familien ordezkariak bere burua inskribatu behar du bertan. Alabaina, lehiaketan izango bada soilik inskribatu behar da.
- Familien ordezkariak arbitroengana joan behar du, bertan dagoela jakin dezaten, eta partidaren non egongo den azaldu behar die.
- Arbitroek erraz ikusteko eta heltzeko moduko leku batean egon behar du, bere taldearen zaleengandik hurbil, esleitutako funtzioaren bat egin behar duten uneetan izan ezik. Horretarako, bere esku-hartzea behar den lekura joan ahal izango da. Ezin izango da sartu lehiaketa egiten den jokalekuan, egoera larri edo oso larrietan izan ezik, eta, soilik,



parte-hartzaileak babesteko edo horien arteko liskarrak saihesteko.

Partidan edo lehiaketan

- Arbitro taldeak protokoloko 1. jardunbidea aktibatzen badu ordezkariaren taldearen zaleen jokabide desegoki batengatik eta arbitroak edo bere taldearen entrenatzaileak zuzenean eskatzen badio, ordezkariak gorabehera eragin duten pertsoneri esan beharko die uzteko bertan behera jokabide hori. Oharrak:
 - 1. jardunbidea aktibatzen da protesta edo keinu desegokiak egiten direnean edo gaizki hitz egiten denean, edo behin eta berrito egiten direnean.
 - Lehiaketa ez da berriz hasiko ohartarazpena egin eta partida geldiaraztea eragin duen egoera konpondu arte. Bestela, lehiaketa amaitutzat joko da.
- Arbitro taldeak protokoloko 2. jardunbidea aktibatzen badu ordezkariaren taldearen zaleen jokabide desegoki batengatik eta arbitroak edo bere taldearen entrenatzaileak zuzenean eskatzen badio, ordezkariak gorabehera eragin duten pertsoneri ohartarazi beharko die instalaziotik beren borondatez irten ezean partida bertan behera utziko dela. Oharrak:
 - 2. jardunbide honela aplikatzen da:
 - a) 1. jardunbidea aplikatu eta lehiaketari berriz ekin ondoren ikusleek protesta, keinu edo hitz desegokiak egiten jarraitzen badute.
 - b) Zuzenean, gorabehera larria edo oso larria gertatzen bada: mehatxuak, larderia, irainak edo laidoak, adierazpen arrazistak, xenofoboak, sexistak edo homofoboak barne.
 - Gorabehera eragin dutenak instalaziotik irtenez gero, lehiaketari berriz ekingo zaio. Aldiz, instalaziotik irten ezean, partida edo lehiaketa amaitutzat joko da.
- Ordezkariak ikusten badu beste taldearen zaleen jokabidea desegokia dela edo bere taldearen zaleek, eskatu arren, ez dutela jokabidea aldatzen, arbitroengana joan ahal izango du eta protokoloa aplikatzeko eskatu.
 - Oharra: protokoloko jardunbideak arbitro taldeak baino ezin ditu aplikatu; beraz, ordezkari batek aplikatzeko eskatu arren, arbitro taldeak ez aplikatzea erabaki dezake.
- Gertaerak larriak direla eta beharrezkotzat jotzen badu, familien ordezkariak udaltzainengana (092) edo Ertzaintzara (112) jo ahal izango du, zuzenean zein instalazioaren arduradunen bitartez, gatazka konpontzeko.

Partida edo lehiaketaren ondoren

- Beharrezkotzat joz gero, familien ordezkariak bere entitatearen zuzendaritzari edo kirolaren federazioari eta Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuari jakinarazi ahal izango dizkie partidaren aurretik zein ondoren eta partidan zehar izan diren gertaera guztiak, aztertu eta behar diren jarduketak egiteko.

4. ZER EZ DU EGIN BEHAR FAMILIEN ORDEZKARIAK?

1. Beste taldearen zaleekin aritu

Bere taldearen zaleekin baino ezin du esku hartu edo bitartekari aritu.

2. Ez ikusi jokabide desegokiei

Familien ordezkariak kasu egin behar die jokabide desegoki eta erasokor guztiei. Jokabide horiei jaramonik egiten ez bazaie, baliteke egoera larritzea eta norgehiagokako giroa gaiztotzea.

3. Arbitroei protesta egin



Familien ordezkariak arbitroen erabakiak onartzea bultzatu behar du; zalantzan ipintzen baditu, bere aginte morala gal lezake.

4. Bere ardurak alde batera utzi

Partidan zehar ezin du arreta galdu, ez eta bere egitekoa ahaztu ere. Funtsezkoa da adi egotea harmailetan zer gertatzen den.

5. Bere buruaren kontrola galdu

Funtsezkoa da familien ordezkariak lortzea bere emozioek eraginik ez edukitzea bere jokabidean eta egoera larrietan bitartekari aritzeko gaitasunean. Beste pertsona batzuk baretzeko gauza izango bada, bere burua kontrolatzeko ahalmena eduki behar du.

5. NOR IZAN DAITEKE FAMILIEN ORDEZKARIA?

- Gomendioa da taldeko kirolari baten aita, ama edo legezko tutorea izatea, baina entitateak izendatzen duen adin nagusiko edozein pertsona izan daiteke, baldin eta familien ordezkariaren eskola lizentzia badauka. * *Eskola lizentzia lortu nahi duena eskola kirolaren aplikazioan inskribatu behar da (CUDE).*
- Talde bakoitzeko familien ordezkari bat baino gehiago inskribatu daitezke eskola kirolaren aplikazioan (izan ere, komenigarria izan daiteke), helburuak, ardura handikoak direnak, denen artean lortzeko, batetik, eta norbait ez dagoenerako ordezekoak egoteko, bestetik. Dena dela, lehiaketetan pertsona bat bakarrik inskribatu daiteke aktan familien ordezkari modura, eta berak baino ezin du eduki besokoa soinean.
- Familien ordezkariak beste lizentzia edo kargu batzuk ere eduki ditzake kirol entitatearen barruan, bai eta taldean ere (koordinatzailea, taldearen ordezkaria...), baina lehiaketa batean ezin da agertu aktan bi lizentzia desberdinekin.
- Familien ordezkariak honako ezaugarri hauek eduki behar lituzke, ahal dela:
 - **Buruzagitza eta aginte morala:** familien errespetua eduki behar du; zaleengan nagusikeriarik gabe eragiteko gauza izan behar da. Ospe onekoa eta etikoa izan behar da, besteek beren ohartarazpenak onartu ditzaten.
 - **Abilezia eta diplomazia:** pertsonekin egoten jakin behar du, eta jokabideak tentuz eta begirunearekin zuzentzeko agintzen, bidegabeko larrialdirik sortu gabe, baina tinko behar denean.
 - **Gatazkak kudeatzeko gaitasuna:** harmailetako giroa larria denean edo ikusle batzuen jokabidea desegokia denean, gauza izan behar da lasai esku hartzeko eta bitartekari lanak egiteko, gatazkak okerrera egin ez dezan. Eroapena eta enpatia ezinbestekoak dira horretarako.
 - **Kirolaren eta joko arauen ezagutza:** hobereana da ordezkariak ondo ezagutzea kirola edo lehiaketaren arauak, zeren eta horrela gauza izango baita arbitroaren erabakiak edo jokaldiak zuzentzeko edo argitzeko. Gainera, ezagutza horrek ordezkariaren agintea indartuko du, ikusleek errespetu handiagoa izaten baitiete kirolaren berri ondo dakitenei; horrela errazago egin ahal izango du bitartekari lana.
 - **Konpromisoa kirolaren baloreekin:** funtsezkoa da familien ordezkariak konpromisoa edukitzea eskola kirolean nagusi izan behar diren errespetuarekin, kiroltasunarekin eta joko garbiarekin, bai eta horiekin bat etorritik jardutea ere.



6. **KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK**

Familiei informazioa ematea

Lana errazteko eta helburuak lortzeko, ezinbestekoa da entitateak familiei adieraztea erabaki duela familien ordezkaria txertatzea bere taldeetan; gainera, ordezkariaren egitekoak zein diren azaldu behar die eta beren onespena lortu behar du.

Noiz inskribatu

Kirol-erakundeak familien ordezkaria izendatu/aukeratu ahal izango du, eta, beraz, CUDE eskola-kirolaren aplikazioan izena eman, denboraldiko edozein unetan. Hala ere, gomendatzen da, hasiera-hasieratik, talde bakoitzeko gutxienez pertsona bat izendatzea.

Autobusak

Lehiaketa batean joan-etorrian ibili behar bada eta Arabako Foru Aldundiak horretarako garraioa antolatzen badu, familien ordezkariak autobusean joan ahal izango du taldearekin.

Taldeko ordezkariarekiko desberdintasunak

Familietako ordezkaria eta taldeko ordezkaria desberdinak dira, eta figura hori taldeetan izatea ere borondatezkoa da. Taldeko teknikarientzat bideratutako espazioan egoteko aukera du taldeko ordezkariak (aulkia edo modalitatearen arabera beste espazio batzuk), eta lehiaketetan, bere eginkizun nagusia teknikariei eta kirolariei laguntzea da, behar dituzten alderdietan. Aldiz, familien ordezkaria ezin da aulkietan edo antzekoetan kokatu, gainerako teknikarien batera; aitzitik, ikusleentzako espazioan egon behar du, eta lehiaketetan haren eginkizun nagusia publikoaren portaera ona zaintzea da.